

## *Balio proposamena*

Gure produktuaren ideia gure taldekide baten egoeratik etorri zen. Izan ere, elbarritua dago, eta bere beharrak aztertzerakoan, zailtasun handiak dituela ikusi genuen. Gainera, gure inguruan gero eta pertsona elbarritu gehiago dago, arazo ezberdinekin, eta, horregatik, bere egoera hobetzeko eta erosoagoa egiteko proiektu hau egitea erabaki genuen.

Elbarrituek lurretik edo leku garaietatik gauzak hartzeko duten arazo eta beharra asetzen du. Egunerokotasunean askotan gertatzen dira horrelakoak: atea irekitzeko beharra, motxilatik gauzak ateratzeko beharra... Dena den, hain sinpleak diruditen “arazo” hauek, elbarrituentzat zailtasun serioa suposatzen dute. Gure helburua behar hauek modu eraginkorrean eta sinpleenean asetzea da.

Gure proiektuak eskaintzen duen berezitasun nagusia, bizkarrean kokatutako objektuak hartzeko gaitasuna da, eta, gainera, funtzio ezberdinak batuko ditu produktu bakar batean. Adibidez, atea ireki ditzaketen esku mekanikoak badaude, edo objektuak har ditzaketenak. Dena den, biak batera egin dezakeen eskurik ez dago, eta ezta bizkarretik objektua har dezakeenik ere.

Etorkizunari begira, lehenik eta behin gure produktua ondo ateratzea lortzeko ahaleginak egingo ditugu. Hori gertatuz gero, beste sistema ezberdinak garatzea pentsatu dugu, behar espezifikoak ase ahal izateko. Adibidez, ahots bidezko kontrol-sistema garatzea pentsatu dugu, eta baita irisaren bidezkoa ere.